

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

318

4/2026 EBAZPENA, urtarrilaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Renfe Viajeros, S.M.E., SArekin sinatutako hitzarmena, tarifa-hobariak emateko distantzia ertaineko trenetan, Miranda de Ebroko eta Altsasuko geltokien arteko ibilbideetan eta tartekoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Renfe Viajeros, S.M.E., SArekin sinatutako hitzarmena, tarifa-hobariak emateko distantzia ertaineko trenetan, Miranda de Ebroko eta Altsasuko geltokien arteko ibilbideetan eta tartekoetan. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 14a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2026ko urtarrilaren 23a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 14KO 4/2026
EBAZPENARENA

EUSKADIKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA RENFE VIAJEROS SOCIEDAD
MERCANTIL ESTATAL, S.A. SOZietatearen ARTEKO HITZARMENA, MIRANDA
DE EBROKO ETA ALTSASUKO GELTOKIEN ETA TARTEKO GELTOKIEN ARTEKO
DISTANTZIA ERTAINEKO TRENEN TARIFA-HOBARIA EGITEKO

BILDU DIRA:

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (aurrerantzean, EAEAO), Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren sailburu Susana García Chueca.

Eta, bestetik, Renfe Viajeros Sociedad Mercantil Estatal SA (aurrerantzean, Renfe Viajeros), egoitza soziala Madrilen duena (Ciudad de Barcelona etorbidea 4, Madril), eta A-86868189 IFZ duena. Egintza honetan, Álvaro Fernández Heredia jaunak ordezkutzen du, Administrazio Kontseiluko presidentea den aldetik, 2025eko urtarrilaren 29an Tomás Pérez Ramos Madrilgo notarioaren aurrean emandako ahalordeen arabera (protokolo-zenbakia: 761).

Bi alderdiek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau formalizatzeko behar besteko gaitasuna eta eskumena, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

I.– Apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretuak onartzen du Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea Estatuko Administrazio Orokorraren (aurrerantzean, EAO) eginkizunak, bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkienak, bertan zerrendatzen direnak (Bilboko eta Donostiako zabalera iberikoko aldirietako gunek eta Bilboko zabalera metrikoko aldirietako nukleoa). Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen eginkizunen artean, tarifa-ahala dago, eta horren barruan berariaz sartzten dira konpentsazio-araubidea finkatzea, OSP kontratuak formalizatzea eta zerbitzuari aplikatu beharreko tarifak eta prezioak zehaztea, bai eta tarifa-sistema integratuei atxikitzeko formulak artikulatzea eta erabiltzaile-kolektibo jakin batzuei ezarritako hobariak aplikatzea ere.

Eskualdatze hori eraginkorra da jada 2025eko urtarrilaren 1etik, 2024ko azaroaren 28an EAoren, EAEAOren eta Renfe Viajerosen artean sinatutako subrogazio-akordioa indarrean jarri ondoren.

II.– Eskumenak Eusko Jaurlaritzari eskualdatzearen irismena Bilboko eta Donostiako aldirietako guneen eremura mugatzen bada ere, bai zabalera konbentzionalekoak, bai zabalera metrikokoak, apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretuaren eranskinean jasotzen da (368/2024 Errege Dekretua, apirilaren 9koa, bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuak EAeri eskualdatzekoa), zabalera iberikoko eta zabalera metrikoko aldirietako zerbitzuen zerrendan ere jasotzen da, eta horien funtzioak eskualdatzen dira, Araia-Gasteiz eta Gasteiz eta Manzanos-Erribera Beitia arteko konexioak, etorkizuneko aldirietako zerbitzuen zati gisa. EAEko Administrazio Orokorrak etorkizunean trenbide-zerbitzua hobetu nahi du eremu horretan, gaur egun zerbitzua ematen duten zirkulazioak handituz.

Gaur egun, Arabako Lautadako zerbitzuak Altsasu eta Miranda udalerrietaraino hartzen duen ibilbidea Estatuko Administrazio Orokorraren eskumeneko trenbide-zerbitzuen bidez egiten da,

«Distantzia ertaina» izenarekin, zabalera konbentzionaleko sarean (Burgos-Gasteiz-Iruñea, Iruñea-Gasteiz eta Vitoria-Irun harremanen barruan), eta zerbitzu publikoko betebeharraren mende geratzen dira, Ministro Kontseiluaren 2017ko abenduaren 15eko Erabakian ezarritakoaren arabera. Erabaki hori 2024ko abenduaren 3an berrikusi zen, eta Estatuko Administrazio Orokorren eskumeneko bidaiarien trenbide-garraioko zerbitzuei dagozkien zerbitzu publikoko betebeharrak ezartzen ditu Interes Orokorreko Trenbide Sarean.

Hitzarmenak I. eranskina jasotzen du, Miranda de Ebro, Gasteiz eta Altsasu ibilbideetan zirkulatzen duten distantzia ertaineko trenen egungo eskaintzarekin.

Helburu horrekin, EAEko Administrazio Orokorrek hitzarmen bat sinatu zuen 2025eko uztailaren 1ean Estatuko Administrazio Orokorrekin eta Renfe Viajosekin, Miranda, Gasteiz eta Altsasu artean zerbitzua handitzeko, haren finantzaketa bere gain hartuta. Beraz, adierazitako ibilbidean, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek osorik finantzatutako ustiapen-defizita duten trenak zirkulatuko dira, bai eta beste tren batzuk ere, zeinen ustiapen-defizita Estatuko Administrazio Orokorrek finantzatuko baitu. Zerbitzu horiek guztiak Estatuko Administrazio Orokorrek eta Renfe Viajosek 2018ko abenduaren 18an sinatutako kontratuaren bidez emango dira, bidaiariak aldirietako trenbidez, ohiko distantzia ertainez, distantzia ertaineko abiadura altuz (avant) eta zabalera metrikoz garraiatzeko zerbitzu publikoak emateko, Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak.

III.– EAEAOren asmoa da Miranda de Ebroko eta Altsasuko geltokien artean doazen distantzia ertaineko tren guztiek tarifakazio bera izatea tarte horretan, zehazki, T1 izeneko tarifa aplikatzea. Horri esker, Miranda, Gasteiz eta Altsasu arteko geltokietan abiapuntua eta helmuga duten bidaiariak, bai eta tarteko geltokietan daudenek ere, tren-eskaintza osoa egin ahal izango dute, eta garraio-titulu berak erabili ahal izango dituzte edozein trenetan.

IV.– Ekonomiaren, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloetan presako neurriak onartzen dituen urtarrilaren 28ko 1/2025 Errege Lege Dekretuaren bidez, eta kalteberatasun-egoerei aurre egiteko, garraioa sustatzeko zenbait neurri onartu dira 2025erako. Hitzarmen honen xedeari dagozkionez, 2025eko bigarren seihilekorako, 20.3 artikuluan ezartzen da hileko ordainketa izendun bat sortuko dela jatorria-helmuga bakoitzerako, % 40ko deskontuarekin Exprés T2 tarifaren hileko ordainketan ezarritako prezioen gainean, eta % 50eko deskontu gehigarriarekin gazteentzako hileko ordainketa berri horren prezioaren gainean. EAEko Administrazio Orokorrek neurri hori babestu nahi du ordainketa horien deskontu gehigarri bat eginez Arabako udalerriei dagokien tartean, zehazki Manzanos eta Araia estazioen artean, biak barne, hitzarmen hau indarrean jartzen denetik 2025eko abenduaren 31ra arte.

V.– Renfe Viajerosen helburu soziala da bidaiariak trenbidez garraiatzeko zerbitzuak ematea, bai estatuan, bai nazioartean, bitartekotza egitea turismo-zerbitzuak emateko, bidaia konbinatuak edo turismo-produktuak antolatzeko, eskaintzeko edo merkaturatzeko, bai eta trenbideko garraioari lotutako edo haren osagarri diren beste zerbitzu edo jarduera batzuk ematea ere.

VI.– 2018ko abenduaren 18an, Renfe Viajosek kontratu bat sinatu zuen Estatuko Administrazio Orokorrekin, Estatuko Administrazio Orokorren eskumeneko zerbitzu publiko hauek emateko: bidaiariak aldirietako trenbidez, ohiko distantzia ertainaren bidez, distantzia ertaineko abiadura handiaren bidez (avant) eta zabalera metrikoaren bidez garraiatzeko zerbitzu publikoak, 2018-2027 aldirako zerbitzu publikoko betebeharraren mende. Zerbitzu horien artean daude Miranda de Ebro, Gasteiz eta Altsasuko geltokien arteko trenbide-garraioko zerbitzuak.

VII.– Renfe Viajosek eta EAEAOk interes komuna dute hitzarmen hau sinatzeko, Altsasu, Gasteiz eta Miranda de Ebro herrien artean igarotzen diren distantzia ertaineko zerbitzu guztiek

tarifazio-sistema komun bat izan dezaten, alderdiek hitzarmen honetan zehaztutako konpromisoak beren gain hartuta.

Horrenbestez, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren babesean, eta, besteak beste, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean (SPAJL) ezarritakoaren babesean, eta arestian azaldutakoarekin bat etorritz,

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Estatuko Administrazio Orokorrak Miranda de Ebro, Gasteiz eta Altsasuko geltokien artean eta alderantziz zerbitzu publikoko betebehartzat jotzen dituen distantzia ertaineko trenen tarifetan hobari bat ezartzea.

Hitzarmen honen arabera, Renfe Viajerosen T1 Eskualde Tarifa aplikatuko diete jatorria eta helmuga Miranda de Ebro, Gasteiz eta Altsasuko geltokien artean duten bidaiariei, tarteko geltokiak barne.

EAEAOk ordainduko dio Renfe Viajerosi aipatutako tarifekin merkaturatzen diren trenen MD T4 tarifaren eta Expres T2 tarifaren eta distantzia arrunt konbentzionaleko eskualdeko tarifaren (T1) artean dagoen aldea.

Onuradunak izango dira Estatuko Administrazio Orokorrak zerbitzu publikoko betebehartzat jotako trenetan, Miranda de Ebro, Gasteiz eta Altsasuko geltokien artean eta tarteko geltokietan garraio-tituluak lortzen dituzten bidaiari guztiak, bai eta garraio-titulu horiek saltzeko gaitutako salmenta-kanal guztietan ere.

2025eko bigarren seihilekoan, eta 1/2025 Errege Lege Dekretuaren neurriei laguntzeko, EAEko Administrazio Orokorrak Renfe Viajerosi ordainduko dio errege lege-dekretu horretan ezarritako hileko ordainketen zenbatekoaren (T2 tarifaren arabera hileko ordainketa izendunaren prezioaren gaineko % 40ko deskontuari dagokiona, Manzanos eta Araia arteko helmuga eta tarteko geldialdi bakoitzerako) eta 20 euroko zenbatekoaren artean dagoen aldea. Gazteentzako hileko ordainketei dagokienez, errege lege-dekretu horretan jasotako definizioaren arabera, EAEAOk Renfe Viajeros enpresari ordainduko dio Errege Lege Dekretu horretan ezarritako hileko ordainketen zenbatekoaren (lehen deskribatutako hileko ordainketa izendunaren gaineko % 50eko deskontuari dagokiona, Manzanosen eta Araiaren arteko helmuga-jatorri bakoitzerako eta tarteko geralekuetarako) eta 10 euroko zenbatekoaren artean dagoen aldea.

Hitzarmen honek ez du eraginik ez oreka ekonomikoan, ez tarifa-araubidean, ez eta Renfe Viajeros eta Estatuko Administrazio Orokorraren artean sinatutako 2018ko abenduaren 18ko kontratuan araututako beste alderdi garrantzitsu batzuetan ere. Kontratu hori bidaiariak aldirietako trenbidez, distantzia ertain konbentzionalez, avant bidez eta zabalera metrikoz garraiatzeko zerbitzu publikoak emateko da, eta Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena da, zerbitzu publikoko betebeharrei lotuta.

Bigarrena.– Renfe Viajerosen betebeharrak.

Renfe Viajerosen eskualdeko tarifarekin (T1) merkaturatuko dituzte abiapuntua eta helmuga Miranda-Gasteiz-Altsasu tartean eta tarteko geralekuetan duten distantzia ertain konbentzionaleko tren guztiak.

Titulu horiek ohiko salmenta-kanalen bidez salduko dira: online salmenta, geltokiak, bidaiia-agenziak, telefono bidezko salmenta, autosalmenta-makinak edo etorkizunean sar daitekeen beste edozein kanal.

Garraio-txartelen salmenta-prezioak eta aplikatu beharreko deskontuak eta baldintzak Estatuko Administrazio Orokorrak eskualdeko tarifarako (T1) ezarritakoak izango dira. Indarrean dagoen bitartean eskualdeko tarifaren (T1) prezioek aldaketaren bat izango balute, berehala jasanaraziko da tituluen prezioetan.

2025eko bigarren seihilekoan, Renfe Viajerosen hilean 20 euroko tarifarekin merkaturatuko dute helduentzako ordainketa, bai eta gazteentzako hileko ordainketa ere, 10 euroko tarifarekin, Arabako udalerriei dagokien tartearen barruan –zehazki, Manzanos eta Araiako geltokien eta haien tarteko geralekuen artean– dagoen jatorri/helmuga bakoitzeko, 1/2025 Errege Lege Dekretuan eta Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Estatu Idazkariaren 2025eko ekainaren 12ko Ebazpenean ezarritako merkaturatze-baldintzetan. Ebazpen horren bidez, urtarrilaren 28ko 1/2025 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluan ezarritako garraio kolektiboa sustatzeko neurriak aplikatzeko baldintzak ezartzen dira (1/2025 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 28koa, ekonomia-aren, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloko presako neurriak onartzen dituen, eta kalteberatasun-egoerei aurre egitekoa), Renfe Viajerosen aldetik abonuen eta titulu ugarien prezioa murrizteari dagokionez.

Renfe Viajeros hitzarmen honetan horri buruz ezarritako funtsezko baldintzak behin eta berriz betetzen ez baditu, edo Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kausaren bat gertatzen bada, erakunde onuradunak emandako laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko du, baita aplikatu beharreko berandutze-interesak ere.

Hala ere, Renfe Viajerosen betetze-maila nabarmen hurbiltzen bada erabateko betetzera, eta Renfek argi eta garbi egiaztatzen badu konpromisoak betetzeko jardun bat egin duela, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da, bidezkoa bada, eta ez du inola ere gaitzuzko justifikatu beharreko guztizkotik egiaztatutako betetzearen guztizkoa kentzearen ondoriozko zenbatekoa, proportzionaltasun-irizpidearen arabera.

Hirugarrena.– EAEAOren betebeharrak.

EAEAOk konpromisoa hartzen du Renfe Viajerosi konpentsazio ekonomikoa emateko, Estatuko Administrazio Orokorrak Miranda-Gasteiz-Altsasu ibilbidean eta tarteko geralekuetan zerbitzu publikoko betebehartzat jotako distantzia ertaineko trenetarako jaulkitako tituluen prezioaren eta aipatutako ibilbidean tren guztiei aplikatuko zaien eskualdeko tarifaren (T1) arteko aldea konpentsatzeko. Tarifaren alde hori ondorengo klausulan adierazitakoaren arabera kalkulatu da.

EAEAOk konpromisoa hartzen du Renfe Viajerosi konpentsazio ekonomikoa emateko, Arabako udalerriei dagokien ibilbidean (zehazki, Manzanos eta Araiako geltokien eta tarteko geralekuen artean) distantzia ertaineko trenetarako 2025eko bigarren seihilekoan jaulkitako hileko ordaintzen prezioaren eta helduentzako hileko 20 euroren eta gazteentzako hileko 10 euroren arteko aldeagatik, 1/2025 Errege Lege Dekretuan jasotako baldintzen arabera. Zenbateko horiek hitzarmen honen III. eranskinean daude jasota.

2025-2027 aldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren bidez, ehun eta laurogei mila (180.000,00) euroko gehieneko zenbatekoa konprometitzen du, likidatu beharreko zenbatekoak finantzatzeko, – Renfe Viajeros konpentsatzeko hitzarmen honen xedean deskribatutako hobariengatik. Horretarako, hitzarmenaren gehieneko

kostu ekonomikoari aurre egiteko behar den kredituaren 1001211000 1.51314.43900 2025/001080 aurrekontu-aplikazioa hornitu da. Aurrekontu-partida hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorren kargura gaitu da, eta beharrezkoak diren kontabilitate-egokitzapenak egin dira, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan oinarrituta (Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen eta aurrekontu-araubidea arautzen duena).

2025: 100.000 euro.

2026: 40.000 euro.

2027: 40.000 euro.

Aurrekontuan ezarritako zenbatekoen zenbatekoa gorabehera, EAEAOk bere gain hartuko du benetan egindako hobarien konpentsazio osoa, eta behar diren neurriak hartuko ditu Renfe Viajerosen likidazioak hitzarmen honetan ezarritako epeetan ordaintzeko kreditua eduki ahal izateko.

Alderdietako batek aurreikusten badu urteko gehieneko zenbatekoa gainditu daitekeela, Jarraipen Batzordea deituko du, eta EAEAOk hitzarmen honetan bere gain hartutako betebeharrak epe barruan betetzeko hartu beharreko neurrien berri eman beharko du bertan. Aurrekontua handitu ezin bada, hobaria berehala aplikatzeari utziko zaio.

Laugarrena.– Dirulaguntzaren xedea, likidazioa eta ordaintzeko modua.

1.– Renfe Viajerosen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin likidatuko dute Estatuko Administrazio Orokorrek baimendutako trenaren jatorrizko tarifaren eta Eskualdeko tarifaren (T1) arteko garraio-titulu guztien prezio-aldea. Tarifa hori tren horiei Miranda de Ebro-Gasteiz-Altsasu ibilbidean aplikatuko zaie.

Beraz, 3 kasu gerta daitezke:

– Expres Tarifa duten trenak (T2), Espres Eskualdeko zerbitzuan erabiltzen direnak. Renfe Viajerosen EAEAOk likidatuko dute Miranda, Gasteiz eta Altsasu arteko tartean jatorria/helmuga duen eskualdeko tarifarekin (T1) tren horietan erositako txartel guztien prezioaren aldea. Likidazio hori egiteko, II. eranskinean agertzen den matrizearen zenbatekoak aplikatuko dira. Eranskin horretan, garraiatutako bidaiari bakoitzak jatorriaren eta helmugaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoak agertzen dira. Helmuga bakoitzaren zenbatekoa Jatorri/Helmuga bakoitzerako T1 eta T2 tarifen tarifa orokorraren arteko aldea bezala kalkulatu da.

– MD (T4) tarifa duten trenak, distantzia ertaineko (MD) produktuan erabilitakoek, Renfe Viajerosen EAEAOk likidatuko dute Miranda, Gasteiz eta Altsasu arteko tartean jatorria/helmuga duen eskualdeko tarifarekin (T1) tren horietan erositako billete guztien prezioaren aldea. Likidazio hori egiteko, II. eranskinean agertzen den matrizearen zenbatekoak aplikatuko dira. Eranskin horretan, garraiatutako bidaiari bakoitzak jatorriaren eta helmugaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoak agertzen dira. Helmuga bakoitzaren zenbatekoa Jatorri/Helmuga bakoitzerako T1 eta T4 tarifen tarifa orokorraren arteko aldea bezala kalkulatu da.

– Eskualdeko tarifa duten trenak (T1), likidatuko ez direnak.

Likidazioa hileroko egingo da, eta EAEAOk egingo du ordainketa, banku-transferentzia bidez, Renfe Viajerosen zehazten duten kontura. Kontu hori likidazioen oinean agertuko da.

Renfe Viajerosen egingo dituzte likidazioak, hurrengo hilabeteko lehen hamar (10) egun naturalen barruan, eta erregistro elektronikoan aurkeztuko dira:

<https://rec.redsara.es/registro/action/are/acceso.do>.

EAEAOk, behin-behineko likidazioa jaso eta bost egun balioduneko epean, desadostasuna adierazi ahal izango du, horretarako arrazoiak adierazita. Bestela, EAEAOk likidazioa onartzen duela ulertuko da.

Renfe Viajaresek, hurrengo bost egun baliodunetan, behin betiko faktura egingo dute. Bestalde, EAEAOk konpromisoa hartzen du Renfe Viajaresek jaulkitako fakturak 30 eguneko epean ordaintzeko, faktura horiek jasotzen direnetik zenbatzen hasita.

Egindako likidazioari buruzko desadostasunik badago, eta alderdiek zuzendu ondoren, EAEAO ez bada inola ere salbuetsiko dagozkion ordainketak egitetik, ondorengo likidazio batean erregularizatuko da. Halaber, sistemetan doikuntzak egiten badira datuak ez kargatzeagatik edo bestelako arazo teknikoengatik, datu zuzenak kargatu ondorengo likidazioan erregularizatuko dira.

Likidazio-baldintzen edozein aldaketa alderdiek adostu beharko dute, Jarraipen Batzordearen bitartez.

EAEAOk ordainketa-betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko da mugaegunetik aurrera, eta zor diren zenbatekoei aplikatuko zaie. Ez ordaintzeak ahalmena emango dio Renfe Viajaresei adostutako tarifak berehala aplikatzeari uzteko.

2.– Renfe Viajaresek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin likidatuko dute 2025eko bigarren seihilekoan Arabako udalerriei dagokien tartean (zehazki, Manzanos eta Araiako geltokien eta haien tarteko geltokien artean) saldutako hileko ordainketen prezioaren aldea, 1/2025 Errege Lege Dekretuan jasotako tarifen eta baldintzen arabera, eta 20 euroko zenbatekoa helduentzako hileko ordainketetarako eta 10 euroko zenbatekoa gazteentzako hileko ordainketetarako.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren dirulaguntza MD T4 tarifaren eta Expres T2 tarifaren eta distantzia ertain konbentzionaleko eskualdeko tarifaren (T1) artean dagoen aldearen ondoriozko kostua finantzatzeko baino ezin izango du erabili Renfe Viajaresek, aipatutako tarifekin merkaturatzen diren trenei dagokienez, bai eta 2025eko bigarren seihilekoan hileko ordainketen prezioa finantzatzeko ere, zeina aurreko 2. puntuan jasotakoaren arabera likidatuko baita.

4.– Dirulaguntza zuzena da, eta bateragarria da pertsona fisikoek edo juridikoek jarduera berberak egiteko eman ditzaketen beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin. Hala ere, laguntza eta dirulaguntza horien baturak ezin izango du inola ere gainditu jardueren kostua.

5.– EAEAOko Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza izango da dirulaguntza kudeatzeaz arduratuko den organoa.

Hitzarmen honek ez dakar zuzenean betebeharr ekonomiko-finantzariorik Renfe Viajerosentzat.

Bosgarrena.– Jarduketan Jarraipen Batzordea.

Renfe Viajerosen eta EAEAOren arteko kontratuaren Jarraipen Batzordea erabiltzea erabaki da, 2024ko azaroaren 28an sinatutako subrogazio-akordioaren 3.6 klausulan ezarritakoaren arabera. Batzorde hori presidente batek (Eusko Jaurlaritzak izendatuko du) eta sei kidek (hiru EAEAOren ordezkari eta hiru Renfe Viajerosena) osatuko dute, honako eginkizun hauek betetzeko:

– Hitzarmenaren betearazpena bultzatzea eta erraztea, hitzarmenean aurreikusitako helburua behar bezala betetzen dela zainduz.

– Hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena egitea, eta gauzatze-jarduketan berri izatea.

– Hitzarmenaren helburua lortzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduketa guztiak egiteko behar den koordinazioa sustatzea.

– Gauzatzean sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea.

– Hitzarmenaren indarraldia luzatzea proposatzea, beharrezkoa izanez gero.

– Alderdien adostasunez agintzen zaion beste edozein.

Hitzarmen honi dagokionez, Jarraipen Batzordearen erabakiak aho batez hartuko dira, eta kide guztiak, pertsonalki edo behar bezala ordezkatuta, bileretara joatea eskatuko da.

Batzorde horretako kideak horiek izendatutako pertsonak ordezkatu ahal izango dituzte. Era berean, erakunde bakoitzeko langileen laguntza jaso ahal izango dute.

Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez. Era berean, bere eginkizunak betetzeko behar beste aldiz bildu ahal izango da, edozein alderdik eskatuta.

Hitzarmenean jarraipen-batzordearentzat berariaz aurreikusten ez den guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluaren 3. atalean araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

Seigarrena.– Komunikazioak.

Alderdien arteko komunikazioak jaso direla egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez egingo dira, eta, ondorio horietarako, baliozkoak izango dira posta ziurtatuaren edo ohiko beste edozein komunikazio-bideren bidezko komunikazioak.

Eusko Jaurlaritza	Renfe Viajeros
Arreta: Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuz. Tel.: 945.019.714 e-mail: DT-TRANS@euskadi.eus	Arreta: Euskadiko AZ A.G. Tel.: - e-mail: aida.rozalen@renfe.es

Alderdietako edozeinen helbidea edo harremanetarako pertsona aldatzen bada, idatziz jakinarazi beharko zaio beste alderdiari, jakinarazpenak edo komunikazioak zer helbide berritatik eta zer egunetatik aurrera zuzendu beharko zaizkion adierazita.

Zazpigarrena.– Informazioa eta publizitatea.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, alderdi sinatzaileek elkarrekin adostutako dibulgazio-ekintza guztiak egin ahal izango dituzte, hitzarmen honen zabalkundea babestu eta indartzeko, kultura- eta sustapen-ekintzak eta abar eginez. Hori alde batera utzi gabe, alderdiek banan-banan egingo dituzte ekintzak, trenbideko garraioaren abantailak eta onurak hobeto eza-gutzeko. Gainera, alderdiek adierazi dute prest daudela helburu horiei buruzko informazio-trukea sustatzeko eta ekintza zehatzak adosteko hitzarmen honen Jarraipen Batzordearen egoitzan.

Hitzarmen hau zabaltzeko batera egiten den publizitateak zorrotz beteko du indarrean dagoen araudia, eta Renfe Viajeros enpresaren irudi korporatiboa eta EAEOren bereizgarriak jasoko ditu beti, eta alderdien komunikazio, marka eta publizitateaz arduratzen diren sailek onartu beharko dute.

Bai Renfe Viajerosen bai EAeko Administrazio Orokorren egokitzat jotzen dituzten bitartekoak erabili ahal izango dituzte hitzarmen honetan jasotako neurrien arrakasta zabaltzeko eta errazteko.

Zortzigarrena.– jabetza industrial, irudia eta marka.

Alderdi bakoitzaren izen soziala, marka erregistratuak, logotipoak eta edozein zeinu bereizgarri bakoitzaren jabetza eskusiboa dira.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek ere ezin izango du erabili ez markarik, ez bereizgarririk, ez beste alderdiaren industria-jabetzako, irudiko eta markako eskubideen mende dagoen ezer, hitzarmen honetan berariaz ezarritakoez bestelako helburuetarako.

Alderdi bakoitzak besteari bermatzen dio marka eta zeinu bereizgarri guztien titularra dela, bai eta, hala badagokio, beste alderdiak hitzarmen honen arabera erabiltzen dituen industria-jabetzako, irudiko eta markako beste edozein eskubideren titularra ere, edo, hala badagokio, hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak betetzeko titularren dagozkion baimenak dituela. Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute aurreko klausulan aipatutako beste aldearen zeinu bereizgarriak erabiltzeko, hitzarmen honetan adostutakoaren arabera, Renfeko Marka Eskuliburuari eta EAEOk ezarrita dituen arauak dagokienez.

Hala badagokio, alderdietako batek, hitzarmen honetan aurreikusitako betebeharrak betez, bestearen logotipoak eta irudi korporatiboa erabili ahal izateko, azken horrek alde aurretik gainbegiratu eta onartu beharko ditu idatziz, eta, gainera, bere zeinu bereizgarriak dagozkion dokumentazioan edo euskarrian jartzeko eta kokatzeko adostasuna eman beharko du.

Aldeetako batek beste alderdiaren titulartasuneko markak eta jabetza industrialeko, irudiko eta markako beste edozein eskubide hitzarmen honetan aurreikusitako helburuetarako erabiltzeak ez du inola ere ekarriko alderdi horiek horien gaineko inolako eskubiderik eskuratzea.

Alderdi bakoitzak, edozein arrazoi dela medio bi alderdien arteko harremana amaitzen denean, harengandik jasotako elementu, euskarri eta zeinu bereizgarriak itzuli edo suntsitu egin beharko ditu, bere arrazoizko erabileraren ondoriozko egoeran, beste alderdiaren aukeran. Une horretatik aurrera, jabetza industrialeko, irudiko eta markako eskubide horien titularra ez den alderdiak ezin izango du beste aldearen marka edo beste edozein zeinu bereizgarri euskarri batean berriro erabili.

Bederatzigarrena.– Lagapena.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek ere ezin izango dio laga hitzarmena osorik edo zati batean, ez eta bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati eskualdatu edo subrogatu ere, beste alderdiaren berariazko eta idatzizko baimenik gabe.

Hamargarrena.– Datuen babesa. Hitzarmena sinatzen duten aldeak dagokienez:

Renfe Viajerosen eta EAeko Administrazio Orokorren ezagutzen dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuen Babesteko Erregelamendu Orokorra edo DBEO), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta hura garatzeko araudia.

Sinatzaileen eta hitzarmen honetan identifikatutako pertsonen datu pertsonalak Renfe Viajerosen eta EAEOk tratatuko dituzte, haien artean formalizatutako harremana kudeatzeko, eta tratamenduaren oinarri legitimatzailea hitzarmen hau gauzatzea izango da. Interesdunen datu

personak horiek Renfe Viajeros eta EAEAOk gordeko dituzte hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta, amaitu ondoren, legez ezarritako denboran, izan litezkeen erantzukizunei erantzuteko. Ez da aurreikusten datu horiek beste hirugarren batzuei komunikatzea edo lagatzea, legeak hala agintzen ez badu.

Renfe Viajeros eta EAEAOk interesdunei jakinarazten diete edozein unetan baliatu ahal izango dituztela datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, datuen aurka egiteko eta datuak transferitzeko eskubideak. Horretarako, idatziz jo beharko dute, posta arruntez edo elektronikoz, jarraian adierazten diren helbideetako edozeinetara, NANarekin edo nortasuna egiaztatzeko beste dokumentu ofizial batekin batera:

– Renfe Viajeros:

– Posta elektronikoz: derechos.viajeros@renfe.es

– Posta arruntez, Renfe Viajeros Sociedad Mercantil Estatal SAri zuzenduta, Ciudad de Barcelona etorbidea 8, 1. solairua– 28007 Madril.

– EAEAO – Datuak babesteko ordezkaria:

– Posta elektronikoz: dpd-dbo@euskadi.eus

– Telefonoz: 18680.

Era berean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien aurka egiteko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez: <https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-a2datuba/eu/>

Hamaikagarrena.– Indarrean jartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau, sinatzen den egunean perfektionatzen dena, eraginkorra izango da Estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoan inskribatzen den egunean, eta 2027ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan eta 48.8 artikuluan ezarritakoaren arabera. Gainera, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 32.1 eta 33. artikulua.

Edozein unetan, aurreko paragrafoan aurreikusitako indarraldia amaitu aurretik, alderdiek hura gehienez ere lau urtez luzatzea erabaki ahal izango dute, hura formalizatzeko beharrezkoak diren izapide bereberak jarraikiz.

Hamabigarrena.– Aldaketak.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearekin bat etorriz, hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek aldatu nahi badu, bosgarren klausulan aurreikusitako jarraipen-batzordeari proposatu beharko dio.

Alderdiek batzorde horretan adosten badute diruz lagundutako zerrendak zabaltzea, hitzarmenaren gehigarri bat sinatu beharko da, eta alde aurretik aurrekontu-zuzkidura bat esleituko da, zabaltze hori ahalbidetzeko.

Hamahirugarrena.– Azkentzea.

Hitzarmen hau bere xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean azkenduko da.

Honako hauek izango dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea eta hura luzatzeko erabakirik ez hartzea.
- b) Alderdi sinatzaileek aho batez hala erabakitzea.
- c) Aldeetako edozeinek bere kasa hartutako konpromisoak betetzea oztopatzen edo eragozten duten salbuespenezko arrazoi justifikatuengatik hartutako erabakia, salaketa modu frogagarrian egin ondoren, bi hilabeteko aurrerapenarekin.
- d) Hitzarmenaren sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, bete duen alderdiak errekerimendu bat jakinaraziko dio bete ez duen alderdiari, gehienez ere hilabeteko epean bete ditzan bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmen honetan aurreikusitako Jarraipen Batzordeari jakinaraziko zaio.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro eta ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak ez-betetzearen arduradunari jakinaraziko dio badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak, eta hitzarmena suntsitutzat joko da.

- e) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala.
- f) Aurrekoez bestelako edozein arrazoi, hitzarmenean edo legeetan aurreikusita badago.
- g) Tren-zerbitzua ezabatu edo aldatzeagatik, hitzarmen honen xede diren ibilbideetan ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik, Renfe Viajerosentzat erabateko kalterik gabe.

Edozein arrazoiengatik aldeztatik azkentzen bada, gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko zaie erabiltzaileei.

Hamalauugarrena.– Azkentzearen ondorioak.

Hitzarmen honek indarra galtzen badu, likidatu egingo da, eta aplikatutako hobariak likidatu eta ordura arte ordaintzeke zeuden zenbateko guztiak ordaindu beharko dira.

Aurrekoa gorabehera, hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoietako bat gertatzen denean jarduketaren bat abian bada, alderdiek, Jarraipen Batzordeak proposatuta, egokitzat jotzen dituzten jarduketekin jarraitzea eta amaitzea erabaki ahal izango dute, eta amaitzeko epe luzaezin bat ezarriko dute. Epe hori igarotakoan, jarduketan likidazioa egin beharko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hamabosgarrena.– Izaera eta jurisdikzioa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

2026ko urtarrilaren 23a, ostirala

Hitzarmenean jasotako klausulek arautuko dute hitzarmena, eta, klausula horietan jasota ez dagoenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren eta administrazio-zuzenbideko gainerako arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

Hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen desadostasunak alderdien adostasunez konponduko dira Jarraipen Batzordean, hargatik eragotzi gabe administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Hitzarmen hau sinatzeko baimena Renfeko zuzendaritza-organoei eta Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioak eman beharko dute, Renfe Viajerosen eta Estatuko Administrazio Orokorren 2018ko abenduaren 18an sinatutako kontratuaren arabera. Kontratu horren bidez, zerbitzu publikoak eman nahi dira bidaiariak aldirietako trenbidez, distantzia ertain konbentzionalerik, aurreratuz eta zabalera metrikoz garraiatzeko, Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak baitira, eta zerbitzu publikoko betebeharrak bete behar dituzte.

Eta ezarritakoarekin ados daudela adierazteko, bertaratuek elektronikoki sinatzen dute.

Egoitza elektronikoa, 2025eko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Mugikortasun Jasangarriaren sailburua,
SUSANA GARCIA CHUECA.

Renfe Viajeros, S.M.E., SAko lehendakaria,
ÁLVARO FERNANDEZ HEREDIA.

I. ERANSKINA

Tarifa-hobariaren xede diren zerbitzuak Estatuko Administrazio Orokorrak eta Renfe Viajereok «distantzia ertaina» izenarekin Miranda de Ebroko eta Altsasuko geltokien artean zirkulatzen duten zabalera konbentzionaleko sarean (Burgos-Gasteiz-Iruñea, Iruñea-Gasteiz eta Gasteiz-Irun harremanetan sartutako ibilbideak) sinatutako kontratuan jasotakoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Renfe Viajeros erakundearen arteko hitzarmena sinatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Miranda, Gasteiz eta Altsasuaren arteko zerbitzuaren gehikuntza finantzatzeko, bigarren azalpen-zatian adierazi bezala, hitzarmen honen xede diren zerbitzuak baldintza berberetan sartuko dira hitzarmen honetan.

ALSASUA-MIRANDA DE EBRO

Origen	Tren	Días Circulación	Altsasu	Altsasu Pueblo	Arala	Agurain Salvatierra	Alegria-Dulantzi	Vitoria-Gasteiz	Namclares-Langraiz	La Puebla de Arganzón	Manzanos	Miranda de Ebro	Destino
Vitoria	18010	LaS	-	-	-	-	-	7:40	-	-	-	8:00	P.Flo
Iruñ	30600	LaS	7:47	-	7:55	8:01	8:09	8:20	-	-	-	-	Vitoria
Miraflores	18071	LaS	-	9:21	9:32	9:38	9:45	9:53	10:04	10:09	10:13	10:22	Miranda
S Sebastián	18012	LaS	12:36	-	12:45	12:50	12:57	13:05	-	-	-	13:26	P. Flo
S Sebastián	18112	D	12:36	-	12:45	12:50	12:57	13:05	-	-	-	13:26	P. Flo
Vitoria	16204	LaV	-	-	-	-	-	14:30	14:39	14:44	14:48	14:57	Miranda
S Sebastián	18014	Diario	15:30	-	15:39	15:44	15:51	15:59	-	-	-	16:20	P. Flo
Vitoria	18016	D	-	-	-	-	-	17:20	-	-	-	17:44	P. Flo
Pamplona	16015	Diario	-	17:15	17:28	17:33	17:40	17:48	17:59	18:04	18:09	18:17	Miranda
Pamplona	16017	LaS	-	20:48	20:59	21:04	21:10	21:19	-	-	-	-	Vitoria
Castejón	16027	D	-	20:47	20:58	21:03	21:09	21:19	21:28	21:33	-	21:44	Miranda
S Sebastián	16004	Diario	21:58	-	22:06	22:11	22:18	22:28	22:41	22:46	-	22:59	Miranda

MIRANDA DE EBRO-ALSASUA

Origen	Tren	Días Circulación	Miranda de Ebro	Manzanos	La Puebla de Arganzón	Namclares-Langraiz	Vitoria-Gasteiz	Alegria-Dulantzi	Agurain Salvatierra	Arala	Altsasu Pueblo	Altsasu	Destino
Miranda	16207	LaV	7:20	7:28	7:32	7:37	7:47	-	-	-	-	-	Vitoria
Miranda	30601	Diario	8:18	8:27	8:31	8:36	8:45	8:57	9:04	9:09	-	9:18	S Sebastián
Burgos	16019	LaS	9:26	-	-	-	9:52	10:03	10:10	10:15	10:28	-	Pamplona
Miranda	16019	D	9:26	-	-	-	9:52	10:03	10:10	10:15	10:28	-	Pamplona
P. Flo	18060	Diario	14:26	-	-	-	14:48	14:57	15:04	15:09	-	15:18	S Sebastián
Miranda	18029	Diario	14:55	15:03	15:08	15:13	15:22	15:32	15:39	15:44	15:55	-	Miraflores
P. Flo	18062	LaVyD	17:54	-	-	-	18:15	18:23	18:29	18:34	-	18:42	S Sebastián
P. Flo	18962	S	18:02	-	-	-	18:22	18:30	18:37	18:42	-	18:50	S Sebastián
Vitoria	16011	LaS	-	-	-	-	19:00	19:08	19:15	19:20	19:31	-	Castejón
Vitoria	16011	D	-	-	-	-	19:00	19:08	19:15	19:20	19:31	-	Miraflores
P. Flo	18066	V	20:26	-	-	-	20:50	-	-	-	-	-	Vitoria
P. Flo	18064	LaVyD	22:38	-	-	-	23:00	-	-	-	-	-	Vitoria

2026ko urtarrilaren 23a, ostirala

II. ERANSKINA

Miranda de Ebro eta Altsasu artean egiten diren ibilbideei aplikatuko zaizkien tarifak T1 izenekoari dagozkio. Hitzarmen hau sinatzen den unean, jatorria-helmuga bakoitzerako tarifa orokorra honako hau da:

Txartel arrunta (tarifa orokorra)

	Miranda de Ebro	Manzanos	La Puebla Arganz.	Nanclares-langraiz	Vitoria-Gasteiz	Alegria-Dulantzi	Agurain Salvatierra	Araia	Altsasu
Miranda de Ebro		1,95 €	2,10 €	2,90 €	3,80 €	4,40 €	4,40 €	5,65 €	7,40 €
Manzanos	1,95 €		1,95 €	2,10 €	2,90 €	3,80 €	4,40 €	4,40 €	5,65 €
La Puebla Arganz.	2,10 €	1,95 €		1,95 €	2,10 €	3,80 €	3,80 €	4,40 €	5,65 €
Nanclares-langraiz	2,90 €	2,10 €	1,95 €		2,10 €	2,90 €	3,80 €	3,80 €	4,40 €
Vitoria-Gasteiz	3,80 €	2,90 €	2,10 €	2,10 €		2,10 €	2,90 €	3,80 €	3,80 €
Alegria-Dulantzi	4,40 €	3,80 €	3,80 €	2,90 €	2,10 €		2,10 €	2,10 €	2,90 €
Agurain Salvatierra	4,40 €	4,40 €	3,80 €	3,80 €	2,90 €	2,10 €		1,95 €	2,10 €
Araia	5,65 €	4,40 €	4,40 €	3,80 €	3,80 €	2,10 €	1,95 €		2,10 €
Altsasu	7,40 €	5,65 €	5,65 €	4,40 €	3,80 €	2,90 €	2,10 €	2,10 €	

Hona hemen bidaiari bakoitzak likidatu beharreko zenbatekoak, jatorriaren eta helmugaren arabera: Hurrengo tauletako zenbatekoa kalkulatzeko, eskualdeko T1 tarifa orokorraren eta eskualdeko T2 eta T4 tarifaren arteko aldea erabili da jatorria-helmuga bakoitzerako.

Bidaiariak jaso beharreko zenbatekoa: eskualdeko T1 tarifaren eta Expres T2 tarifaren arteko aldea

	Miranda de Ebro	Manzanos	La Puebla Arganz.	Nanclares-langraiz	Vitoria-Gasteiz	Alegria-Dulantzi	Agurain Salvatierra	Araia	Altsasu
Miranda de Ebro		0,25 €	0,25 €	0,40 €	0,35 €	1,00 €	1,00 €	0,65 €	1,00 €
Manzanos	0,25 €		0,25 €	0,25 €	0,40 €	0,35 €	1,00 €	1,00 €	0,65 €
La Puebla Arganz.	0,25 €	0,25 €		0,25 €	0,25 €	0,35 €	0,35 €	1,00 €	0,65 €
Nanclares-langraiz	0,40 €	0,25 €	0,25 €		0,25 €	0,40 €	0,35 €	0,35 €	1,00 €
Vitoria-Gasteiz	0,35 €	0,40 €	0,25 €	0,25 €		0,25 €	0,40 €	0,35 €	0,35 €
Alegria-Dulantzi	1,00 €	0,35 €	0,35 €	0,40 €	0,25 €		0,25 €	0,25 €	0,40 €
Agurain Salvatierra	1,00 €	1,00 €	0,35 €	0,35 €	0,40 €	0,25 €		0,25 €	0,25 €
Araia	0,65 €	1,00 €	1,00 €	0,35 €	0,35 €	0,25 €	0,25 €		0,20 €
Altsasu	1,00 €	0,65 €	0,65 €	1,00 €	0,35 €	0,40 €	0,25 €	0,25 €	

Bidaiariak jaso beharreko zenbatekoa: eskualdeko T1 tarifaren eta MD T4 tarifaren arteko aldea

	Miranda de Ebro	Manzanos	La Puebla Arganz.	Nanclares-langraiz	Vitoria-Gasteiz	Alegria-Dulantzi	Agurain Salvatierra	Araia	Altsasu
Miranda de Ebro		0,60 €	0,70 €	0,90 €	1,45 €	1,85 €	1,85 €	1,95 €	2,45 €
Manzanos	0,60 €		0,60 €	0,70 €	0,90 €	1,45 €	1,85 €	1,85 €	1,95 €
La Puebla Arganz.	0,70 €	0,60 €		0,60 €	0,70 €	1,45 €	1,45 €	1,85 €	1,95 €
Nanclares-langraiz	0,90 €	0,70 €	0,60 €		0,70 €	0,90 €	1,45 €	1,45 €	1,85 €
Vitoria-Gasteiz	1,45 €	0,90 €	0,70 €	0,70 €		0,70 €	0,90 €	1,45 €	1,45 €
Alegria-Dulantzi	1,85 €	1,45 €	1,45 €	0,90 €	0,70 €		0,70 €	0,70 €	0,90 €
Agurain Salvatierra	1,85 €	1,85 €	1,45 €	1,45 €	0,90 €	0,70 €		0,60 €	0,70 €
Araia	1,95 €	1,85 €	1,85 €	1,45 €	1,45 €	0,70 €	0,60 €		0,70 €
Altsasu	2,45 €	1,95 €	1,95 €	1,85 €	1,45 €	0,90 €	0,70 €	0,70 €	

III. ERANSKINA

2025eko bigarren seihilekoan saldutako helduentzako hileko abonua bakoitzeko likidatu beharreko zenbatekoak, jatorriaren eta destinoaren arabera, honako hauek dira:

	Manzanos	La Puebla Arganz.	Nanclares-langraiz	Vitoria-Gasteiz	Alegria-Dulantzi	Agurain Salvatierra	Araia
Manzanos		11,70 €	15,25 €	31,70 €	40,00 €	55,25 €	55,25 €
La Puebla Arganz.	11,70 €		11,70 €	15,25 €	40,00 €	40,00 €	55,25 €
Nanclares-langraiz	15,25 €	11,70 €		15,25 €	31,70 €	40,00 €	40,00 €
Vitoria-Gasteiz	31,70 €	15,25 €	15,25 €		15,25 €	31,70 €	40,00 €
Alegria-Dulantzi	40,00 €	40,00 €	31,70 €	15,25 €		15,25 €	15,25 €
Agurain Salvatierra	55,25 €	40,00 €	40,00 €	31,70 €	15,25 €		11,70 €
Araia	55,25 €	55,25 €	40,00 €	40,00 €	15,25 €	11,70 €	

2025eko bigarren seihilekoan saldutako gazteentzako hileko abonua bakoitzeko likidatu beharreko zenbatekoak, jatorriaren eta helmugaren arabera, honako hauek dira:

	Manzanos	La Puebla Arganz.	Nanclares-langraiz	Vitoria-Gasteiz	Alegria-Dulantzi	Agurain Salvatierra	Araia
Manzanos		5,85 €	7,65 €	15,85 €	20,00 €	27,65 €	27,65 €
La Puebla Arganz.	5,85 €		5,85 €	7,65 €	20,00 €	20,00 €	27,65 €
Nanclares-langraiz	7,65 €	5,85 €		7,65 €	15,85 €	20,00 €	20,00 €
Vitoria-Gasteiz	15,85 €	7,65 €	7,65 €		7,65 €	15,85 €	20,00 €
Alegria-Dulantzi	20,00 €	20,00 €	15,85 €	7,65 €		7,65 €	7,65 €
Agurain Salvatierra	27,65 €	20,00 €	20,00 €	15,85 €	7,65 €		5,85 €
Araia	27,65 €	27,65 €	20,00 €	20,00 €	7,65 €	5,85 €	